

- Zer? Dragoi txiki bat duzula?
- Bai, ikusi al duzu?
- Ez, baina aítak esan du animalia arraro bat salduko edo aítalduko genuela.
- Zer!!! -esan zuen larrituta-.

Aitor oso-oso urduri áartzen ari zen.

- Baina, baina non dago aita? -esan zuen Aitorrek.
- Herrira áoan da.

Aitor korrika áoan zen herrira eta aita ikusi zuenean:

- Aita! Aita!
- Kaixo Aitor! Zer gertatzen zaizu?
- Non ikusi duzu animalia hori?
- Zure logelan.
- Baina... zer egingo duzu?
- Saldu.
- Zergatik?
- Oso arriskutsua delako.
- Bai zera!

Aitor aitaren atzetik áoan zen triste. Aitor eta bere aita, denda batera heldu ziren. Josek, dragoia eta bere kaiola kaxa handi baten gainean ipini zituen, eta Jose dendariarekin hizketan egon zenean, Aitorrek kaiola hartu eta ospa egin zuen. Josek dendariari erakusteko buelta eman zuenean, han ez zegoen dragoirik. Jose oso haserre áarri zen.

Aitor bere etxe ondoko basora heldu zenean, lurrean áesarri eta dragoia besoetan hartu zuen. Dragoia eztulka hasi zen eta eztularekin bat sugarrak botatzen zituen. Aitor berarekin hizketan hasi zen:

- Eztula daukazu eta sugarrak botatzen dituzu... Sugar deituko zaitut!

Hurrengo goizean, Aitorrek opil batzuk hartu eta dragoiarengana áoan zen. Aitorrek opilak aurrean utzi zizkion eta dragoiak lehenengo usaindu eta gero áan egin zituen:

- Egunon Sugar, zelan daude opilak? Gozo, ezta?

Arratsalde horretan, Josek, Aitor eta Sugar elkarrekin áolasten ikusi zituen eta zera esan zion: